

ISD²⁰₂₁

INTERAKZIONISMO SOZIO-DISKURTSIBOAREN VII. NAZIOARTEKO KONGRESUA

MINTZAIRA JARDUERA:
IKERKETAK ETA PRAKTIKA
DIDAKTIKOAK MUNDU ELEANIZTUNEAN

Donostia - San Sebastián
2021eko uztailaren 5etik 7ra



UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
UPV/EHU



eman ta zabal zazu

Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea


Organización
de las Naciones Unidas
para la Educación,
la Ciencia y la Cultura
Hezkuntza,
Zientzia eta Kulturarako
Nazio Batuen Erakundea



Cátedra UNESCO
de Patrimonio Lingüístico Mundial
Munduko Hizkuntza Ondarearen
UNESCO Katedra

LEHENENGO ZIRKULARRA

ISD 2021

Mintzaira-jarduera: ikerketak eta praktika didaktikoak mundu eleaniztunean

AURKEZPENA

2021ean Interakzionismo Sozio-Diskurtsiboaren (ISD) VII. Nazioarteko Kongresua izango da Donostian. Kongresu horretan hizkuntzaren interakzionismo sozio-diskurtsiboarekin lotutako ikerketak partekatuko ditugu gure ezagutza eguneratzeko. Zazpigarren topaketa horretan garrantzi berezia emango zaio irakaskuntza eleaniztunari eta haren barnean hizkuntza gutxituak aintzat hartzeko moduari.

Hau da Euskal Herrian (eta espainiar eta frantses estatuetan) egiten den lehenengo Interakzionismo Sozio-Diskurtsiboaren (ISD) topaketa. Ordea, Ginebrako Unibertsitateko gure kolaboratzaileen ekarpenei esker, Euskal Herrian ISDren eragina oso nabarmena izan da hizkuntzen eta haien trataeraren inguruko gaiei dagokienez, bereziki, hizkuntzen ikas eta irakas-prozesuen alorrean. Hainbat erakunde eta dokumentutan geratu da islatuta korrante horren eragina, dela ume zein helduen hizkuntzen irakaskuntzan (euskara nahiz beste hizkuntzena), dela hizkuntza-irakasleen prestakuntzaren arloan ere.

Ziur gaude nazioarteko ikertzaileen presentziak komunitate zientifikoari, oro har, eta euskal komunitateari, bereziki, aukera emango diola ikuspegi interakzionista eta sozio-diskurtsiboa zabaltzeko, bai eta hizkuntza-aniztasunari, hizkuntzen funtzionamenduari eta haien didaktikari buruz dugun ezagutza eta ulermena zabaltzeko ere, besteak beste, hizkuntzaren azterketa eta hizkuntzen irakaskuntza gero eta modu zientifiko eta eraginkorragoan landu dadin.

Mintzairaren jarduera egoera eleaniztunetan eta hizkuntza gutxituetan hobeto ezagutzea gure interesgune nagusia izateak ISDaren ikuspegia zabaltzera garamatza eta beste hurbilbide batzuei lekua egitera, adibidez, tradizionalki soziolinguistikarekin lotutakoak, kontuan hartu nahi baititugu hizkuntza gutxituetako hiztun berrien azterketak zein hizkuntza gutxituen biziberritze prozesuei buruzko ikerketak.

Hizkuntza aniztasuna eta hizkuntza gutxituei dagokienez, UNESCOren gomendio eta ekimenak ditugu batetik; hizkuntza aniztasunaren eta hezkuntza elaniztunaren

(2014) alde egiten dute, hizkuntza indigenen biziberritzearekin batera (IYIL 2019). Bestetik, Europako Kontseiluaren proposamenak (2019) ere baditugu, herritar guztien eleaniztasuna sustatzeko beharra nabarmentzen dutenak.

Gure aburuz, hizkuntza gutxituak integratzen dituen irakaskuntza eleaniztuna da hizkuntza-aniztasuna babestu eta garapen iraunkor globala bermatzeko era bakarra.

Adimenak eta hitzak elkarrenganako duten lotura kontuan izanik, argi dago hizkuntzak ez direla ezaguna den egia adierazteko tresnak, baizik eta, horri kontrajarriz, lehendik ezezaguna zen errealitate bat ezagutzekoak. **Hizkuntza aniztasuna ez dago soinu eta zeinuei lotuta, mundua ikusteko aniztasunari baino** (Humboldt, 1820/2000, p.101, apud Bronckart, 2017:10).

ARDATZ TEMATIKOAK

Kongresua hizkuntza gutxituei eta hizkuntza-aniztasunari arreta berezia (baina ez eskusiboa) eskaintzen dioten lau ardatzen inguruan egituratzen da.

1. ardatza: Teoriak eta epistemologiak

Ardatz honetan hizkuntzalaritza orokorreko ekarpenak sartzen dira. Hain zuzen ere, ISDtik abiatuta mintzaira-jardueraren ikerketaren kontzeptualizazioan sakontzeko aukera ematen duten ekarpenak: hizkuntza eta gizartea, gramatika eta testua, hizkuntza eta hizkuntzen arteko harremanak, hizkuntza-aniztasuna, testua eta testu-generoak, diskurtso motak, testuaren egitura/arkitektura, hizkuntzen didaktika zientzia autonomo bezala eta bere izaera sozio-politikoa, hizkuntza eta garapen psikologikoa...

2. ardatza: Hizkuntzaren ikaskuntza eta garapena

Ardatz honek, psikologia ebolutiboaren ikuspegitik, testuinguru eleaniztunetan (jadanik ez dagoelako guztiz elebakarra den testuingururik) hizkuntzen garapena eta ikaskuntza barne hartzen ditu, besteak beste aipa daitezke: lehen eta bigarren hizkuntzei lotutakoa, hizkuntza gutxituak, tokian tokikoak, nazionalak, atzerrikoak,

atzerritarrenak..., eta baita ohiko eta ez-ohiko garapena ere (hizkuntza-arazoak, eta abar).

Ardatz honetan interesgune da gramatikaren eta diskurtsoaren ezagutzarekiko ikasleen ikaskuntza-prozesuen identifikazioa, hala nola, garapenaren analisirako psikolinguistikan eta hizkuntzen didaktikaren arloan egiten diren azterketen eta erabiltzen diren metodologiaren transposizio posibleak irakaskuntzari begira.

3. ardatza: Interbentzioa eta praktika (sozio-diskurtsibo) didaktikoak

Hirugarren ardatzak hizkuntzen didaktika du ardatz. Gure ustez, ISDaren ekarpen gehienak ikaslea ardatz duten irakaskuntza-praktikak hobetzeko moduak bilatzera bideratu dira: irakaskuntza maila desberdinei dagozkien curriculumak eta materialak programatzea eta lantzea; ikasitako edukiez jabetzeko eraginkortasuna bermatzen duten gailu didaktikoak garatzea; mintzaira-jardueraren edukiak ahozko eta idatzizko komunikazio-sistema gisa tratatzea, gogoeta metalinguistiko gisa, literatura-kultura gisa, eta hizkuntza-aniztasunarekiko eta hizkuntza gutxituekiko sentsibilitate gisa.

Gaitasun eleaniztunak garatzeko hainbat estrategia eta dispositibo ere sartzen dira ardatz honetan: murgilketa bigarren hizkuntzan, transferentzia interlinguistikoa, *translanguaginga*, multimodalitatea, informatika-baliabideak eta, azken finean, ingeniaritza didaktikoari ekarpena egiten dioten hainbat planteamendu, irakaskuntza eleanitzean zein lehen hizkuntzaren edo bigarren hizkuntzaren irakaskuntzan erabilgarriak direnak.

4. ardatza: Mintzaira-jarduera irakasleen prestakuntzan

Ardatz honetan sartzen dira irakasleen prestakuntzarekin lotutako ikasketak, bai hasierakoari eta baita etengabeko prestakuntzari dagokiona ere. Gaia hainbat ikuspegitik landu daiteke: eskola-testuinguruan garatzen den irakaskuntza-jardueraren azterketa; keinu profesional espezifikoaren ezaugarritzea; irakaskuntza-praktikak eta irakasleek beren lanen ganean dituzten irudikapenak aztertzeak tresnak; autokonfrontazioa, galdetegiak, elkarrizketak, ekintza-figurak eta abar.

Gainera, hizkuntza gutxituak eta atzerriko hizkuntzak irakasten, helduei hizkuntza irakasten, alfabetatzen eta literaritatea garatzen, espezialitateko hizkuntzetan, goimailako hezkuntzaren barruko hizkuntzen esparruan, hezkuntza-testuinguru elebieleleaniztunetan, etorkin-jatorriko populazioetan eta abarretan lan egiten duten irakasleen prestakuntzarako azterlanak eta tresnak gogoan hartzen dira.

Ardatz honetan, halaber, ISDaren tradizioan izan diren beste lan mota batzuk ere sartzen dira, esate baterako, mintzaira-jardueraren azterketa lanbide jakinetan.

Erreferentziak:

Bronckart, J.-P. (2017) Interaccionismo socio-discursivo: ¿De dónde venimos y a dónde vamos? *Conferencia de cierre del V Encuentro del ISD*, Rosario (Argentina) (<https://isd-international.org/site/wp-content/uploads/2017/11/Conferencia-cierre.Texto-ES.pdf>)

Consejo de la Unión Europea (2019) Recomendación del Consejo de 22 de mayo de 2019 relativa a un enfoque global de la enseñanza y el aprendizaje de idiomas, *Diario Oficial de la Unión Europea (DOUE) (5-6-2019)* (https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=uriserv:OJ.C_.2019.189.01.0015.01.SPA&toc=OJ:C:2019:189:FULL)

United Nations Educational Scientific and Cultural Organisation [UNESCO] (2019). *Año Internacional de las Lenguas Indígenas* (<https://es.iyil2019.org/>)

United Nations Educational Scientific and Cultural Organisation [UNESCO] (2014) *Multilingual education: Why is it important? How to implement it?* <https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000226554>.



PROPOSAMENAK BIDALTZEA

Hiru ekarpen mota aurkeztu ahal izango dira:

- Ahozko komunikazioak (20 minutuko aurkezpenak eta 10 minutuko eztabaida).
- 2 orduko sinposioa, hiru komunikazio koordinatekin.
- Posterrak.

Proposamenek biltzarreko lau ardatzetako gai bati heldu behar diote nahitaez, eta gaztelaniaz, euskaraz, frantsesez, portugesez edo ingelesez idatzita egon daitezke.

Proposamenak helbide honetara bidaliko dira: comunicaciones@uik.eus

Mezuaren gaiari honako erreferentzia hau adierazi beharko da: 005-21 Ainhoa Urbietta

Proposamenen formatua

Proposamen guztiak word formatuan aurkeztu behar dira (.doc edo .docx).

Komunikazio- eta poster-proposamenek honako hauek jaso behar dituzte: egilearen edo egileen abizena, izena eta datu instituzionalak, komunikazioaren edo posterraren izenburua, zein ardatz tematikotan inskribatzen den, laburpen bat eta bibliografia laburra. Laburpenak, erreferentziekin batera, ez ditu, guztira, 5000 karaktere baino gehiago izan behar (espazioak barne). Aurrerago, posterrak egiteko eredu eskainiko da.

Sinposioak komunikazio koordinateko saioak dira, eta hiru aurkezpen eta eztabaida bat barne hartzen dituzte. Koordinateaile bat izan behar dute, sinposioaren barne-antolaketaz eta proposamena bidaltzeaz arduratuko dena. Sinposio-proposamenak dokumentu bakarrean aurkeztuko dira, gehienez 20.000 karakterekoa (espazioak barne), eta honako hauek jasoko ditu: sinposioaren izenburua eta deskribapen orokorra, egileen izenak eta haien datu instituzionalak, sinposioa inskribatzen den ardatz tematikoa eta gorago aipatutako arauen arabera idatzitako hiru komunikazio-proposamenak.

Proposamenen ebaluazio anonimoa egiteko, bi bertsio bidaliko dira kasu guztietan: bata, gorago eskatzen diren datu guztiekin, eta, bestea, anonimoa, egilearen/egileen izena ez datuak agertzen ez dituen.

GARRANTZIZKO DATAK

- Proposamenak bidaltzeko azken eguna: 2020ko urriaren 30a.
- Batzorde zientifikoaren erantzuna: 2021eko otsailaren 1a.

Informazioa eskuragarri egongo da helbide honetan:
<https://www.ehu.eus/eu/web/mho-unesco-katedra/isd2021>

OSOKO HITZALDIAK

- Jean-Paul Bronckart, Ginebrako Unibertsitatea;
- Ecaterina Bulea-Bronckart, Ginebrako Unibertsitatea;
- Joaquim Dolz, Ginebrako Unibertsitatea;
- Eliane Lousada, Luzia Bueno eta Ermelinda Barricelli, ALTER-AGE ikertaldeko kideak, Brasil.

BATZORDE ANTOLATZAILEA

Ines M^º Garcia Azkoaga, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU);

Leire Diaz de Gereñu, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU);

Ibon Manterola, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU);

Jean-Paul Bronckart, Ginebrako Unibertsitatea;

Itziar Idiazabal, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).



BATZORDE ZIENTIFIKOA

Alicia Santolaria Òrrios, Universitat de València;
Ana M. Guimarães, Universidade do Vale do Rio dos Sinos (UNISINOS), Brasil;
Anderson Carnin, Universidade do Vale do Rio dos Sinos (UNISINOS), Brasil;
Anise D'Orange Ferreira, FCL Araraquara /UNESP, Brasil;
Antonia Coutinho, Universidade Nova de Lisboa;
Arantza Ozaeta, Mondragon Unibertsitatea;
Betânia Passos Medrado, Universidad Federal de Paraíba (UFPB), Brasil;
Carmen Rodríguez, Universidad de Valencia;
Dora Riestra, Universidad Nacional de Río Negro, Argentina;
Ecaterina Bulea-Bronckart, Université de Genève;
Eliane Lousada, USP Sao Paulo, Brasil;
Enlli Thomas, Bangor University, Gales, UK;
Ermelinda Barricelli, USP Sao Paulo, Brasil;
Esti Amorrortu, Universidad de Deusto;
Eulália Leurquin, Universidade Federal do Ceará (UFC), Brasil;
Fernando Ramallo, Universidad de Vigo;
Fiona O'Hanlon, The University of Edinburgh, UK;
Florencia Miranda, Universidad de Rosario, Argentina;
Glais Sales Cordeiro, Université de Genève;
Igone Zabala Unzalu, Universidad del País Vasco (UPV/EHU);
Iñaki García Fernández, Universidad del País Vasco (UPV/EHU);
Iris Campos, Universidad de Zaragoza;
Itziar Elorza, Universidad del País Vasco (UPV/EHU);
Jean Paul Bronckart, Université de Genève;
Joaquim Dolz, Université de Genève;
Jon Casenave, Université Bordeaux Montaigne;
Juliana Alves Assis, PUC Minas Gerais, Brasil;
Lília Abreu-Tardelli, Universidad Estatal de São Paulo, Brasil;
Luci Nussbaum, Universitat Autònoma de Barcelona;
Luzia Bueno, Universidade São Francisco, Brasil;
Maria Angela Paulino Teixeira, PUC, Minas Gerais, Brasil;
Matilde Gonçalves, Universidade Nova de Lisboa;
Melina Aparici, Universitat Autònoma de Barcelona (UAB);
Montserrat Vilà, Universitat Autònoma de Barcelona (UAB);
Pádraig Ó Duibhir, Dublin City University;
Regina Celi Mendes Pereira, Universidade Federal da Paraíba (UFPB), Brasil;
Roxane Gagnon, Haute École Pédagogique Lausanne;
Sandrine Aeby, Université de Genève;
Vera Lúcia Lopes Cristovão, Universidade Estadual de Londrina, Brasil.

LAN-TALDEA

Amaia Munarriz, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU);

Ana Aldekoa, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU);

Ane Ortega, Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskola (BAM);

Argia Olçomendi, Université Bordeaux Montaigne;

Aroa Murciano, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU);

Beñat Garaio, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU);

Isabel García del Real, Nafarroako Unibertsitate Publikoa;

Jaione Ibarra, Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskola (BAM);

Jone Goirigolzarri, Deustuko Unibertsitatea;

M^a Jose Ezeizabarrena, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU);

Maidier Huarte, Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskola (BAM);

Maite Garcia-Ruiz, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU);

Margareta Almgren, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU);

Roberto Mielgo, Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskola (BAM);

Saioa Larraza, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU);

Tania Barberán, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).





ISD²⁰/₂₁ INTERAKZIONISMO
SOZIO-DISKURTSIBOAREN
VII. NAZIOARTEKO KONGRESUA